

# Zer izango da?



**JUNE FERNÁNDEZ**  
KAZETARIA



ANTTON OLARIAGA

**Z**er da? Neska ala mutila?

- Ez dakit, oraindik ez du hitz egiten eta.

Kate Bornstein transekintzaileak proposatutako erantzun hori *queer* giroetan hedatu egin da, haur txikiekin genero binarismoaren obsesioa zalantzan jartzeko. Haurdunok ere erantzun behar dugun etengabeko galdera da. Askotan, "Zer izango da?" besterik ez digute galdetzen. Hamaika gauza erantzun genezake: "Pertsona bat". "Ematen dituen ostikoekin, agian karateka". "Espero dut polizia edo militarra ez izatea!". Baina badakigu "Zer izango da?" galdetzen digunak bi erantzun posible eta bakar dituela buruan: neska ala mutila.

Saiatu naiz pedagogia egiten eta azaldu ohi dut "gehiago inporta zait bihotza ondo izatea". Edo jakinmin handiagoa ematen didala bere aurpegiaren itxurak hankartekoak baino. Pareta baten kontra burukadak ematea bezalakoxea da. Familiak astero jarraitu du galdera bera errepikatzen, begiak distiratsu: "Badakizue, badakizue? Noiz esango dizuete? Tira, badakit berdin duela, inportanteena zorionsua eta osasuntsua izatea dela, baina ilusioa egiten du jakiteak, ezta?".

Obsesio kolektibo horrek amorratzen

banau ere, SOS Arrazakerian militante nintzela aurreiritzi tailer batean bizitako pasadizo bat gogoratu dut. Dinamizatzaileok pertsona-izen bat esaten genuen, demagun Aitziber, eta taldeak bere biografia asmatu behar zuen: "25 urte. Master bat prestatzen ari da. Dantzatzea gustuko du". Demagun Babakar: "Senegaletik etorri da pateran. Top mantan lan egiten du. *Barça* jarraitzen du". Ariketa hori korapilatu egin zen dinamizatzaileok genero marka argirik ez zuen izen bat proposatu genuenean, demagun Shihab. Taldea zeharo blokeatu egin zen: generoa jakin gabe ezin zuten inor irudikatu. Ulertzen dut nire familiari hori gertatzea: sexua jakin arte, nire fetuak ez du identitate, itxura edo izaera posiblerik, eta ezin diote arroparik oparitu. Onartu behar izan dut neroni ere kostatzen zaidala irudikatzea generorik gabeko seme-alaba bat (begira, euskaraz ere senideen izen neutroak behar ditugu).

Sexu/generoa da gure gizartean ardatz zurrunena, kultur sistemak etengabe indartzen duena. Jostailu dendan, zaletasunen araberako sailkapenaren orde, generoaren araberako pasilloak aurkituko ditugu, bat urdina eta bestea arrosa. Espainiako Erregistro Zibilaren

legeak gurasoei debekatzen die haurrei pertsona-izen neutroak jartzea, "anbiguotasuna" duintasunaren kontrakoa omen delako. Euskaltzaindiak men egin eta izendegian asmatu zuen Amets, neskentzat onargarri izateko Ametsa-k izan behar duela. Eskerrak ARGIA aldizkariak, besteak beste, politika zentzugabe eta sexista horren kontra egin zuela.

Genero binarismoa eta horren zaintza dira patriarkatuaren giltzarriak, berdintasun faltaren bermeak eta pertsona trans eta intersexualentzat sufrimendu iturriak. Horregatik da hain garrantzitsua desobeditzea. Baina ez da erraza, nahiz eta diskurtsoa ondo ikasia izan. Aixa de la Cruz idazleak ere haurdun idatzi du honi buruz *La Marea*-n: "Generorik gabeko utopia, Errege Katolikoaren Espainian jainkoa ukatzea bezalakoa da". Bere haurrak alua duela jakin duenean, onartu du *queer* filosofia erabiltzen ari zela bere beldurra mozorrotzeko, alegia, gizarte patriarkal honetan alaba heztearen beldurra. Niri, ordea, beldur gehiago ematen zidan gizarte patriarkal honetan gizon bat heztea. Kontraesanak kontraesan, aitortu behar dizuet ekografoaren pantailan hankartekoa deskubritzeak hunkitu nauela. ●